



## **KIOSKOEKIN LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA**

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 1993/10/04an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1993/10/28an

**Akats zuzenketa:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 1993/12/03an (14.Art. eta Aldibaterako xedapena)

## KIOSKOEKIN LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. atala. Ordenantza honek salmentarako kioskoekin lurzoru publikoa okupatzeko baldintzak arautzen ditu.
2. atala. Lurzoruaren erabilpen pribatiboa egiteko Udalbatzaren emakida behar izango da kioskoa jarri ahal izateko. Emakida hori lizitazio bidez egingo da.
3. atala. Adjudikazioa egiterakoan zehaztuko da emakidaren iraupena. Hala ere, inoiz ezin izango da 25 urte baino denbora gehiagorako izan.
4. atala. Udalak zehaztuko du kasu bakoitzean jarriko den kioskoa nolakoa izango den, eta emakida-hartzailearen kontura izango dira kioskoa eskuratu, jarri eta mantentzeko gastuak.
5. atala. Emakida pertsonala eta besterenduezina izango da. Emakida "mortis causa" agiri bidez transmititu ahal izango zaie lehen mailako ahaidetasuna dutenei bakarrik.
6. atala. Emakida-hartzailearen betebeharrak:
  - 6.1. Behin-betiko adjudikazioa egin ondoren, Udalak finkatutako epean, Ordenantza honetako 4. atalean aurrikusitako obra eta instalazioak egitea.
  - 6.2. Emakidaren xedea eta jarritako baldintzak errespetatzea. Emakidan zehaztutako produktuak bakarrik saldu ahal izango dira, Udalak espreski bestetarako baimenik eman ezear. Baimen-emate hori Udalak bere eritzira erabaki ahal izango du.
  - 6.3. Kioskoarekin okupatutako lurzoru publikoari eta bere bueltan 3 metrotan duen sailari egoera onean eustea. Bestalde, instalazioak behar bezala kontserbatuta izan beharko dira beti.
  - 6.4. Udalaren baimenik gabe, inolako publizitaterik kioskoan ez jartzea.
  - 6.5. Kioskoa hartzaileak berak ustiatzea. Dena den, bera gaisotuz gero, bakarrik lehen mailako ahaidetasuna duen familiartekoren batek ustiatu ahal izango du.
  - 6.6. Argi gastuak eta iharduerak sortarazten dituen bestelakoak ordaintzea.
  - 6.7. Udalbatzak finkatutako gutxieneko egun eta orduetan kioskoa jendearentzako zabalik izatea, arrazoi justifikaturik izan ezik behintzat.
  - 6.8. Kioskoan garatuko duen ihardueraren arabera dagokion epigrafean Iharduera Ekonomikoekiko Zergan alta ematea eta legez dagozkion zerga-betebeharrei erantzutea.
  - 6.9. Gizarte Segurantzako autonomoen erregimenean alta ematea eta langilerik balu harekiko lituzkeen gizarte betebeharrak betetzea.
  - 6.10. Udaletik jasoko lukeen baimen-agiria beti agerian edukitzea.
  - 6.11. Kioskoaren hormetan ez bada, kioskotik kanpo generorik ez jartzea.
  - 6.12. Kiosko barrua higiene eta sanitate egoera onean, edukitzea, iharduera bakoitzak eskatzen duenaren arabera.
  - 6.13. Tokia eta erabiltzen diren beste ondasunak epe barruan Administrazioaren esku libre eta hutsik uztea.
  - 6.14. Indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera, kioskoarekin lurzoruaren erabilpen pribatiboa egiteagatik ordaindu beharreko udal tasa ordaintzea.

7. atala. Emakida-hartzailearen eskubideak:

7.1. Emakidaren titularitateari eustea, baldin eta jabeganatzeko arrazoietakoren bat ez balego.

7.2. Emakida-hartzaileak eskubidea du Udalak emakidaren erabilpen eta gozamina ziurtatu eta, hala balegokio, kalteordaina eman diezaion.

8. atala. Emakida jabetza eskubiderik gabe eta hirugarrengoei kalterik ez sortzekotan egingo da.

9. atala. Jabeganatzea.

Emakida-epearen amaieran Udalak bereganatuko ditu jarritako kioskoak. Kioskook egoera onean egon beharko dute eta hori egiaztatzeko, emakida-epea amaitu baino 15 hilabete lehenago, gutxienez, Udalak izendatutako teknikariek ikuskatuko dituzte eta ikuskapen horren emaitzaren arabera, aurrikusitako egoeran egon daitezen behar diren konponketa eta berrezarpenak aginduko dira. Konponketa eta berrezarpen gastuak emakida-hartzailearen kontu izango dira, Udalbatzetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 131. atalean jasotakoaren arabera.

Emakida-hartzaileak agindutako epean kioskoa utziko ez balu, Udalak aginpidea izango du bertatik botatzea erabaki eta bota ere egiteko.

10. artikulua. Ordenantza honi dagozkion gaiei buruz Udal honetan aurkeztutako idatzi edo baimen-eskaerek hiru hilabeteko epean berarizko ebazpenik jasotzen ez badute ukatuztat hartuko dira, Herri Administrazioetako Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Arrunteko 30/92 Legearen 43.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

11. artikulua. Emakida, emakida-hartzailearen momentuko egoera objetibo edo pertsonala kontutan hartuz egingo balitz, urtero berrikusi ahal izango litzateke eta egoera hobera aldatuz gero kioskoa laga eta Udalaren esku utzi beharra izango luke legokiokeen kalteordaina, amortizatutakoa kendu ondoren ateratzen dena, jaso ondoren. 5 urtetik aurrera ez da kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango.

12. artikulua. Udalak ez du bere gain hartuko emakida-hartzaileek beren hornitzaileekiko izan dezakeen zorrik, ezta kioskoetan gerta daitezkeen kalte edo lapurreten erantzunkizunik ere.

13. artikulua.- Erreskatea.

Udalbatzak, interes publikozko arrazoiak baldin badaude, bere esku dauka emakida mugaeguna baino lehen baliogabetzeko eskubidea, emakida-hartzaileari kalteen ordaina emanaz, edo hala ez badagokio, inolako kalteordainik gabe.

14. artikulua: Zigorrak

Arau-haustea hirutan sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

- Emakida-hartzailearen betebeharretan atzeratzea
- Alkatetzaren Dekretuak ez betetzea.
- Udal zerbitzu teknikoaren ikuskaritzarik ez onartzea.
- Udal-baimena ez erakustea.
- Arau hauste arina egiten duen emakida-hartzaileari 5.000 pezeta arteko zigorra jarriko zaio.

---

BERGARAKO UDALA

Kioskoen lurzoru publikoa okupatzea arautzen duen udal ordenantza

- Arau-hauste larriak, berriz, honako hauek dira:
- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- Jabetza publikoa edo instalakuntzak kaltetu ditzakeen jarduera. - Emakidan zehaztu gabeko beste erabilpen baterako erabiltzea.
- 6. artikuluan, 6.7. idazatian aurrikusitako ordutegia eta opor-txandak ez betetzea.
- Emakida-hartzaileak arau-hauste larria egiten duenean 5.000 pezetako isuna jartzeaz gain kioskoa itxi egingo zaio, 2 eta 30 eguneko tartean.
- Zigorra gorabehera, tokian edo instalakuntzetan kalteak eragiten direnean, eta hauek halaberrez sortu ez direnean, Administrazioak kalteordaina eskatu ahal izango du.

Ondoko hauek hartuko dira arau-hauste oso larritzat:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Emakida-hartzaileak aurreko 6. artikuluko 6.5. idazatian aurrikusitako baldintzetan iharduera ez burutzea.
- Kasu hauek gertatuz gero, 5.000 pezetako isuna jartzeaz gain 31 egunetik 60 egun bitarteko tartean itxiko zaio kioskoa lehenengo aldian, eta berriz eginez gero emakida iraungiarazi gero emakida iraungiarazi ahal izango da.

15. artikulua: Arau-hausteen iraungipen-epeak.

Arau-hauste oso larriek 3 urtera galduko dute indarra, larriek 2 urtera eta arinek 6 hilabetera. Eta zigorrek 3 urteko balioa izango dute urratze oso larriak direnean, bi urte urratze larriak direnean eta 6 hilabete urratze arinengatik jarri direnean.

16. artikulua: Zigorrak

Alkatearen aginpidea da Ordenantza honetan aurrikusitako zigorrak jartzea; eta horretarako, aurrez, Herri-Administrazioetako Lege-Jaurbideko eta Prozedura Administratibo Arrunteko Oinarrien Legean aurrikusitakoari jarraituz, zigor espedientea tramitatu beharko du Gobernazio Batzordeburuak.

Zigor espedientea ofizios edo salaketa baten ondorioz hasi ahal izango da.

Alkateak espedienteari ekitea erabaki ondoren, Instruktoarea izendatuko du eta bi erabakiak eta espedientea sortarazi duten egintzak interesatuari jakinaraziko zaizkio.

Instruktoareak egintzak argitu eta zigorra merezi duten erantzunkizunak zehazteko behar diren frogak lortzea eta burutu beharreko jarduerak burutzea aginduko du.

Espedientea izapidetu ondoren eta erabaki-proposamena idatzi aurretik, egozten zaizkion egintzak, egintza horiek suposatzen dituzten arau-hausteak eta, hala badagokio, ezar dakizkiokeen zigorrak, zigorra ezartzeko aginpidea duen agintariaren identitatea eta aginpide hori ematen dion arauaren berri jakinaraziko zaio, 10 eguneko epea utziz egoki deritzon alegazioak egin eta agiri eta justifikanteak aurkez ditzan.

Erabakiaren proposamena, burututako izapide guztiarekin batera, Alkateari jakinaraziko zaio, espedienteari dagokion erabakia har dezan.

17. artikulua. Emakidaren iraungipena.

Iraungitzeko arrazoiak:

- Kanona ez ordaintzea.
- Epea amaitzea.
- Emakida-hartzaileak uko egitea.
- Emakida bultzatu zuten baldintza sozio-ekonomikoak amaitzea, adjudikatze orduan kontutan hartu baziren behintzat.
- Erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera zigorra jarriz gero.

---

BERGARAKO UDALA

Kioskoen lurzoru publikoa okupatzea arautzen duen udal ordenantza

18. artikulua. Kioskoen kokalekua:

- Arane-Erreka kalea.
- Komenio kalea.
- Espaloia.
- Fraiskozuri.
- Matxiategi kalea.
- Labegaraieta polikiroldegia.
- Oxirondo plaza.

### **ALDIBATERAKO XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean jartzen den unean lurzoru publikoan kioskoa izateko baimendunek Udalak jarriko dien gehienezko epea dute 18. artikuluan aurrikusitako tokiren batean kokatzeko aukera egiteko. Halaber, Ordenantza honen edukia bere osotasunean bete eta gehienez ere urtebeteko epean, Ordenantza onartzen denetik aurrera, aukeratu duten tokian kokatu beharko dute kioskoa eta dagokion kontratua sinatu. Emakidaren gehienezko indarraldia, Ordenantza hau behin-betirako onartzen denetik 25 urterartekoa izango da.

Horrez gain, behin betiko fidantza bezala, 100.000 pezeta ordaindu beharko dute.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

LEHENENGOA: ONCEk dauzkan kioskoak Ordenantza honetan ezarritakotik salbuetsita daude, kokalekuei dagokienean ezik. Kokalekua Udalak adierazitakoa izan beharko da, eta Udalak jarritako epean (inoiz ez urtebete baino gehiago) dagozkien tokietara eraman beharko dituzten.

Halaber, Ordenantza hau onartzen denetik, lurzoru publikoa okupatzeagatik dagozkien tasak ordaindu beharko dituzte.

Interes publikoarengatik ONCEko kioskoen batek kokalekua aldatu behar izango balu, inolako kalteordainik gabe egin beharko luke aldaketa.